


Antxiñako fotografia

Arantzazu orain dala ehun bat urte

Badator aurtan be Arantzazuko Ama Birjiñiaren eguna, agorraren 9xan ospaketan dana, jai haundi eta berezixa oñatierrandako. Egixa esan, ezta beti sasoi hori izan Aloñaosteko Amaren eguna gogoraketako. Emuten daue-
nez, **hasieran bagillian, San Bernabe inguruetan**, izaten zan; **geruago, agustuko Andra Marixetatik urrin barik; eta azkenik agorraren 8ra pasau zan**, hau da, beste leku askotan letxe, Ama Birjiñiaren jaixotegunera. Baiña, Arantzazukua 1918xan Gipuzkoako zainddari izentau euenian, arazotxo bat sortu zan, egun horretan, bestiak beste, Donostiako Koruko Amaren ospakizun-eguna be bazalako, eta probintziako agintarixentzat etzan egogi etorten data hori Oñatira hurreraketako. Horregatik, nunbait, **atzeratu zan hogetalau ordutan hemengo jaixa.**

Argazki honetan agerketan xakun Arantzazuko eliziaren sarreriak halaxe iraun eben 1951. urtian basilika barrixaren obrak hasi ziran arte. Oñatiar asko akordaitten da orainddiok zelakua zan hospederixa ingurutik elizako atarira oian harrizko jaitsiera luzia. Eliziak 1834ko sutian kalte latzak izan arren, badirudi sarrerako fatxadiak itxura hori eukala, bi arku eder horreikin. **Adrian Lizarralde** historialarixak dixuenez, **1743an egin zan Arrionako harrobittik** (Iturrigorri baiño goratuagotik) **ekarrittako arenarrizaz**. Atari gaiñeko txokuan dague **irudixa San Frantziskorena da, Felipe Arrese Beitia (1841-1906), Otxandixoko santugiñak labrautakua**. Gero Mondragueko frantziskotarren komentura eruan zan. Arrese XIX. gizaldiko azken hamarkadetan euskerazko poeta ospetsuenetakua be izan zan eta, beste askoren artian, Arantzazuko Amaren omenez hainbat poema moldau eben.



Fotografixa **Hauser y Menet** argazki-etxe famauak ataratakua da. **Oskar Hauser Muller** eta **Adolf Menet Kustei-ner** argazkilari suitzarrak Madrillen 1890ian jarrittako negoziua urte gutxiren buruan jaun eta jabe bihurtu zan erre-ñu osuan. Millaka postal inprimidu eta saldu zittuain, oso kalidade onekuak, **Louis Alphonse Poitevin**-ek asmautako **fortotipia** izeneko teknikiari esker. Indartsu samar jarraitu eben enpresiak 1979ra arte-edo. Garai bateko aldizkari eza-
gun askoren aliak etxe horretako prentsetatik urtetan euen: esate baterako, **Triunfo, Hola, Cuadernos para el diálogo, Sábado gráfico** edota **Interviú**. Baiña 1980ttik aurrera larri ibili zan eta gorabehera askorekin: **Filesa** kasu entzu-
tetsuan be nahastu euen. Hauser y Menet-en Madrilleko eztaikit zenbagarren inprentatzarra, 4.000 metro karratu euka-
na, momentu batian eretsixa izan zan 1996xan 180 kilo lehergailluren eragiñez.

Argazkixa **XX. gizaldixaren hasierakua** dala pentsaitten dogu. Lehenengo mundu-gerriaren aurtxokua edo akaso lehentxuagokua. **Zaldi-kotxia** agiri da goixan. Zelabaitteko automobilak eta autobusak 1918ttik aurrera ikusi ziran Arantzazu aldian.

J. E.

Eskerrik asko Joxe Mari Urzelairi fotografixa eskuratu doskulako.